

NAFARROA SUSPERTU

Tokikom-en ekarpena

Toki komunikabideak Nafarroa suspertzeko eragile gisa

Ekonomiak, eta gizarteak oro har, kolpe latza jaso dute COVID-19aren ondorengo krisia dela eta ez dela. Kalteak ikusgarriak izan(go) dira eskala txiki eta ertaineko eragileengan. TOKIKOM osatzen dugun toki komunikabideetan zuzenean pairatzen ari gara eragin hori, baina konbentzitura gaude eragile txiki horien eta tokian tokiko komunitateen mobilizaziotik eta hainbat planotako elkarlanetik baino ezin dela etorri eragin horri buelta emateko indarra.

Krisia hasi zen unetik bertatik, [TOKIKOM](#)eko toki komunikabideok indartu egin ditugu martxan genituen hainbat proiektu, batez ere tokiko merkataritza eta tokiko komunitateak aktibatu eta elkarrekin komunikatzera bideratuta, eta iruditzen zaigu proiektu horietako gehienek asko irabaziko luketela erakunde publikoak ere haietan inplikatur gero.

Izan ere, TOKIKOMen eskuartean ditugun hainbat proiektu ederki lerrokatzen dira NAFARROA SUSPERTUK finkatuak dituen helburu estrategikoetako batzuekin. Adibidez:

Helburu estrategikoak

Krisitik ateratzea eredu berri bat bideratuz

Tokiko komunitateen ikuspegitik, Ekonomiak, eta gizarteak oro har, kolpe latza jaso dute COVID-19aren ondorengo krisia dela eta ez dela. Kalteak ikusgarriak izan(go) dira eskala txiki eta ertaineko eragileengan. TOKIKOM

osatzen dugun toki komunikabideetan zuzenean pairatzen ari gara eragin hori, baina konbentzituta gaude eragile txiki horien eta tokian tokiko komunitateen mobilizaziotik eta hainbat planotako elkarlanetik baino ezin dela etorri eragin horri buelta emateko indarra.

Krisia hasi zen unetik bertatik, [TOKIKOM](#)eko toki komunikabideok indartu egin ditugu martxan genituen hainbat proiektu, batez ere tokiko merkataritza eta tokiko komunitateak aktibatu eta elkarrekin komunikatzera bideratuta, eta iruditzen zaigu proiektu horietako gehienek asko irabaziko luketela erakunde publikoak ere haietan inplikatur gero.

Izan ere, TOKIKOMen eskuartean ditugun hainbat proiektu ederki lerrokatzen dira NAFARROA SUSPERTUK finkatuak dituen helburu estrategikoetako batzuekin. Adibidez:

Krisiak ekarri dituen gauza on apurren artean dago ‘zero kilometro’ filosofiaren hedapen bat: inoiz baino argiago ikusi da zer garrantzitsua den ekonomia, osasuna eta zaintza bezalako esparruetan gertuko sare osasuntsu eta indartsuak izatea, eta tokian tokiko eragileen aldeko apustua egitea.

Filosofia eta ikuskera hori hedatzen lagundu nahi dugu toki komunikabideetatik. Eta hedatzeaz ari garenean, filosofia publiko gehiagorengana iristeaz ari gara, baina baita esparru gehiagora zabaltzeaz. Azken urteotan inertzia zoro (eta erabat bideratu) batean sartu gara, eta komunikazio esparruan gero eta gehiago zentratu gara gure mezuak eta interakzioak hiruzpalau multinazional handiren esku dauden sare sozialetan bideratzen, horrek ekarri dituen ondorio kaltegarri guztiekin: desinformazioaren eta iritzi publikoaren manipulazio masiboaren hedapena, tokiko komertzioaren gainbehera internet bidezko plataforma erraldoien mesedetan, agenda informatiboaren monopolizazioa eragile handien aldetik... Zero kilometroko filosofia komunikazioaren esparrura ere zabaldu nahi dugu, balioa emanaz bertatik

bertara lantzen den informazioari, eta tokian tokiko komunitatean gertatzen den ideia truke eta eztabaidari.

Osasun krisiak geldiarazitako ekonomia suspertzea.

‘Zero kilometro’ kontzeptu horren barruan gure planteamendua litzateke irabazi-irabazi estrategiak sustatzea. Adibidez:

1. **Tokiko komertzioetarako bono edo deskontu kupoiak.** Tokiko merkatariak eta tokiko komunikabideak elkarri laguntzeko asmoz, dagoeneko hainbat komunikabidetan (Sakanako Guaixen, adibidez) oso emaitza ona eman duen esperientzia sistematizatu, eta eskaini deskontuan herri edo eskualdeko saltokietan komunikabideko bazkide edo harpidedunei. Esperientzia onuragarria da hiru aldeentzat: merkatari txikiek bezero gehiago lor ditzakete, komunikabideak bazkide gehiago lor ditzake, eta herritarrek deskontu politak inguruko komertzioetan.
2. Toki komunikabideen plataforma digitaletan komertzio eta enpresei zabaldua daukagun leihoa (**gida komertziala**) hobetu eta aberastea, eta hartara, kontsumitzaile eta merkatarien arteko interakzioa errazteko aplikazio edo tresnekin inplementatzea. Adibidez: erreserbak egiteko aukera eskainiz.
3. **Lehiaketen aukera.** Tokian tokiko ezagutza eta komunitate izaera sustatzeko, ‘trivial’ estiloko galdera-erantzun joko sinpleak planteatu komunikabideen bidez, tokiko ondarearen, historiaren eta/edo merkataritzaren inguruan. Hau ere merkatariekin elkarlanean egin daiteke, tokiko eragileen arteko ezagutza eta elkarlana sustatzeko

Berrikuntza tekniko eta soziala bultzatzea, enpresa mundua aldatzeko eta dibertsifikatzeko palanka moduan.

Ekonomia soziala eta kooperatiboa bultzatzea.

Hirugarren sektorea eta lankidetzazko ekonomia garatzea.

Gizarte erresilienteagoa bultzatzea lankidetzatik abiaturik.

Nazioarteko merkatu eta eskari berriak kontuan izatea.

Egin gabeko inbertsioak bultzatzea. Itun sozialetan eta enpresa-itunetan sakontzea.

Talentuaren sustapena.

Kultura bultzatzea kohesio eta ongizate sozialaren elementu giltzarri moduan.

Administrazioa eta sektore publikoa modernizatzea.

Administrazioen arteko harremana eta lankidetzak bultzatzea.

Osasun ekosistema eta helduei zaintzeko ekosistema indartzea.

Babes sozialerako sistemak sakontzea.

Nafarroa konektatua, kohesio digitalerako eta lurralde kohesiorako.

Gaurkoa, egunen batean, historia izango da eta etorkizuneko memoria hori lantzen joate aldera, interesgarri jotzen dugu memoria eta etorkizuna uztartzea eta gazteak kontuan edukitzea. Gazteak, natibo digitalak dira eta ikusentzunezkoak bizi dituzte eta hori kontuan edukita planteatzen dugu:

- Nafarroako historiako pertsonaia ezagun eta esanguratsuak tartekatzea Ttap aldizkari digitalerako propio sortu dugun 'Gorabeherak' formatu bertikaleko websailean. Aitzakia ona izan daiteke gazteei pertsonai horien inguruko jakinmina piztu eta/edo bide horiek hezkuntzan erabiltzeko pertsonaion inguruko lanketa probokatzeko
- Gazteen sorkuntza digitala bultzatu, haientzako propio sortutako ZUT aldizkariaren bidez, ikus-entzunezkoak landuz gazteekin eta sorkuntzarako tartea eskainiz.

Lurraldea berronkatzea eta landa eremua baloratzea.

Tokian tokiko komunikabideak saretuta biltzen dira TOKIKOMen eta aukera polita da Nafarroako eremu horiek balioan jarritz, hiri eta landa

eremuen arteko zubiak uztartzeko.

Nafarroako tokian tokiko komunitateetatik eta komunitate horien beharrei erantzuteko sortu ziren toki komunikabideek, horietako batzuk duela 40 urte. Jasotako lekukotzak (memoria historikoa) digitalizatzean urratsak ematea eta eduki horri ahalik eta zabalkunde handiena ematea garrantzitsua dela iruditzen zaigu. Eta bide horretan, adibidez:

1. Nafarroako hedabideetara zabaltzea Gipuzkoako Aiurri toki komunikabidearekin eta Wikipediarekin TOKIKOMetik egin dugun esperientzia pilotua, non, kasu horretan irudi formatuan zeuden artxiboak digitalizatu eta egoki etiketatu ziren interneteko kontsultaleku garrantzitsua den Wikipedian informazio guzti hau ongi jasota egon ahal izateko. Ikusi proiektua bera hemen.

Proiektu honek bereziki gatazkatsua izan zen garai bat irudiz dokumentatzen eta haren memoria ez galtzen lagunduko digu, bide batez bizi berri bat ematen orain arte baliabide faltagatik aldizkariotako artxiboan ahaztuta zegoen eduki multzo interesgarri bati.

2. Artxibo lan horren lanketa eta hoietan oinarritutako istorien lanketa eta zabalpena toki komunikabideen bitartez. Adibidez <https://aiurri.eus/bereziak/iraganaren-eta-orainaren-leiho>
3. Edo zergatik ez, Nafarroan tokiko komunitatean pisua duen irratiekin ahozko-tasunari lotuta aberastu argazkiekin hasitako bidea.

Ginena eta garena erakusteko eta toki bakoitza desberdina egiten duen tokikotasun horri helduta, bertako turismo eta merkataritzaren erakusleho erakargarri garenean sinisten dugu (gertukoa, fidagarria eta sarean gertuko beste toki komunikabideekin).